# ERMUA - MALLABIA - ERMUA

**PR-BI 70**




| | |
|---|---|
| LUZEERA | 6,3 Km |
| MIDE denborea | 2 hrs |
| Altuera handiena | 329 m |
| Altuera txikiena | 188 m |
| Desnibel metatuta | 654 m |

## IBILBIDEAREN DESKRIBAPENA
DESCRIPCIÓN DEL RECORRIDO

**Ibilbidea Okin Zuriko parkean hasiko dugu. Bi norabide ezberdinetan egiteko aukera ematen digu. Erlojuaren orratze norabidea jarraituko dugu. Ibilbidea ibaia eta errepide ondoan dagoen bidetik doa, zati hau antzinako Errege Bidea da.**
**Anbre Baserrira heltzen garenean errepidea zeharkatuko dugu eta Beranonagusirantz igoko gara.**
**PR-BI 70.1 (2,4 Km.) bariantearekin topo egin ahala aukera bi ditugu; bariantetik jarraituz Mikel Deunaren bazeliza bisita daiteke edo Antonio Deunaren bazeliza eta Urizar baserria ikus daitezke PR-BI 70 ibilbidea jarraituz. Biak luzeera berdina dute eta Arteagan berriro elkartzen dira (3,5 Km.).**
**Laster Beranotxikira helduko gara, auzo honetan San Jurki bazeliza bisita daiteke (4,5 Km.).**
**Ibilbidea jarraitzeko egurrezko zubia kurutzatuko dugu eta erreka ondoko bidetik jarraituko dugu Errekaldeko atsedenlekura iritsi arte. Drogeten iturria pasatu eta gure pausoak Okin Zurira eramango ditugu ibilbidea osatzeko.**

Iniciaremos el recorrido en el parque del barrio de Okin Zuri, podremos recorrerlo en ambos sentidos. Siguiendo el sentido de las agujas del reloj por el camino que discurre junto a la carretera y el rio que forma parte del antiguo Camino Real llegamos al caserio Anbre.
Cruzaremos la carretera e iniciaremos la subida hacia Beranonagusi. Nos encontraremos con la variante PR-BI 70.1 (2,4 Km.). Deberemos elegir entre visitar la ermita de San Miguel Egia por la varianteo la ermita de San Antonio y el caserio Urizar continuando por el PR-BI 70, ambas opciones tienen la misma longitud y se vuelven a encontrar en Arteaga (3,5 Km.).
Enseguida llegaremos al barrio de Beranotxiki donde podremos visitar la ermita de San Jurki (4,5 Km.).
Seguiremos el sendero cruzando un puente de madera y por un camino junto al río hasta llegar al área de descanso de Errekalde y la fuente Drogeten. Pasada la fuente nuestros pasos nos llevarán a Okin Zuri para completar el recorrido.

**Ibilbidea telefonoarekin jarrai dezakezu**

Puedes seguir el sendero con el teléfono




## M.I.D.E

| Ingurunea Medio | Ibilbidea Itinerario | Desplazamendua Desplazamiento | Ahalegina Esfuerzo |
|---|---|---|---|
| 1 | 1 | 2 | 2 |
| **Inguruan arriskuak egon daitezke.** El medio no está exento de riesgos. | **Jarraipena adierazten duten bide edo seinaleztapen** Sendas o señalización que indican la continuidad | **Zalbide-ibilbidea** Marcha por caminos de herradura | **1 eta 3 ordu arteko ibilaldi eraginkorra** De 1 a 3 horas de marcha efectiva |

**GOGORATU! - ¡RECUERDE!**

- **Ibilbidea aldez aurretik prestatu**
  Planifica tu ruta
- **Ahal izanez gero, lagunekin joan**
  Procura ir siempre acompañado/a
- **Esan nora zoazen eta noiz itzuliko zaren**
  Deja aviso de tu itinerario previsto
- **Behar beste janari eta edari eraman**
  Lleva provisiones de comida y bebida
- **Eguzki-babesa eraman**
  No olvides la protección solar
- **Flora eta fauna errespetatu**
  Respeta la flora y la fauna
- **Markatutako ibilbideetatik joan**
  Camina por los senderos marcados

| **Intereseko telefonoak** / Teléfonos de interés | |
|---|---|
| **Udaletxea** / Ayuntamiento | 943 179 010 |
| **Policia municipal** / Udaltzaingoa | 943 176 300 |
| **Polikiroldegia** / Polideportivo | 943 179 090 |
| **Osasun zentroa** / Centro de salud | 943 032 630 |

| **Garraioak** / Transportes | |
|---|---|
| **Bizkaibus** | 902 22 22 65 |
| **Euskotren** | 902 54 32 10 |
| **Taxi** | 943 17 03 96 |

SOS Deiak Emergencias 112



**San Jurki baseliza.**
**Inguru baketsuan kokaturik dago, Beranotxiki auzoan. Honen xarmantasuna bere sinpletasunean dago. Harri-hormez eraikia dago eta bi aldetarako gainaldea du. Aterpe xume du eta honen habetariko batean kanpaia dago zintzilikatuta.**
**Baselizak arku zorrozdun atea, gezileiho eta leiho bat ditu hego mendebaldean. Barnealdean San Jorgeren irudia dago, eta San Jurki izenarekin ezagutzen da.**

Ermita de San Jurki.
Está situada en un tranquilo paraje, en el barrio de Beranotxiki. Es en su sencillez donde reside su encanto.
Está construida con muros de mampostería y cubierta a dos aguas. Posee un sencillo pórtico o aterpe, donde en una de sus vigas se encuentra suspendida la campana.
Cuenta con una interesante puerta de arco apuntado, una aspillera y una ventana en el lado SO. En su interior se encuentra la imagen de San Jorge, bajo cuya advocación se encuentra la ermita.



**Errekaldeko eremua ibilbidearen azken zatian dago. Ego ibaiaren ibaiadarra den Okineko ubidearen alboan. Egurrezko aulkiak eta mahaiak ditu eta igerileku gisa urtegi bat ere. Ibilbidea burutu ondoren freskatzeko aukera eskaintzen du.**

El área de Errekalde está situada prácticamente al final del recorrido, junto a la regata de Okin, afluente del río Ego. Está dotada de bancos y mesas de madera. Cuenta con un pequeño embalse a modo de piscina y es una atractiva opción para refrescarse tras el recorrido.



**Urizar baserria.**
**XVIII. mendeko barroko motako eraikuntza soila da. Sarrerako arkuaren goialdean Urizar jatorriko armarri zoragarria aurki dezakegu. Baserria pasatu ondoren metro gutxitara, "arnaga" zahar bat ikus daiteke (baserriko lanabesak eta lastoa biltzeko landa eraikuntza xumea), garrantzi etnografiko handikoa.**

Caserío Urizar.
Es un sobrio edificio de estilo barroco del siglo XVIII. Sobre el arco de entrada, su fachada luce un bello escudo de armas del linaje de los Urizar.
Pasado el caserío, a pocos metros, podemos ver una antigua arnaga (sencilla construcción rural para el almacenamiento de la paja y la guarda de aperos de labranza), de gran interés desde el punto de vista etnográfico.



**San Miguel Egiakoaren ermita.**
**Beranonagusi auzoan dago. Kanpaia arkupearen hegoaldeko hutsartean aurkitzen da.**
**Arku zorrozdun atea. San Miguelen irudia eta bi koadro dauzka, bat Jesusen Bihotzaren imajinaz eta beste bat Aingeru zaindariaz.**

Ermita de San Miguel de Egia.
Se emplaza en el barrio de Beranonagusi. La campana se halla en un vano en la fachada sur del pórtico.
Puerta de arco apuntado. Posee una imagen de San Miguel y dos cuadros, uno con la imagen del Sagrado Corazón de Jesús y otro con un Ángel de la Guarda.



**Ibai erriberaren ibilbideak zuhaitzen itzalean eta landaredi handiaren arteko eremuan kokatua, bide batekin bat egiten du, bide hori Ermutik Markinarako irteera naturala izan zen mendetan zehar. Hasiera batean "Ferra Bidea" izan zen, hau da, zamak mandoen gainean zeramatzaten; baina XVIII. mendetik aurrera "Errege Bide" bihurtu zen, gurdi eta karrozen igarotzea ahalbidetuz. Bertatik herritar garrantzitsuen gorpuzkiak garraiatzen ziren, horiek Zenarruzako kolegioelizan lurperatuak izateko.**

El recorrido paralelo a la ribera del río, a la sombra de los árboles y entre espesa vegetación, confluye en un punto con un camino que fue durante siglos la salida natural desde Ermua hacia Markina. En un principio fue "Camino de Herradura", es decir, de reatas de mulas que transportaban cargas; pero a partir del siglo XVIII se convirtió en Camino Real, permitiendo el tránsito de carros y carrozas. Por aquí se transportaban los restos mortales de los ciudadanos más influyentes, para ser enterrados en la Colegiata de Zenarruza.

ermua

innpulso
Red de ciudades de Ciencia e Innovación

AYUNTAMIENTO DE LA VILLA DE ERMUA
ERMUA HIRIKO UDALA